


# Kolektiboa



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

**A**utobusean, denak andrak, nirekin batera etorri diren guztiak, andrak eta etorkinak". Ondo daki nire lagunak, nik bezala, halaxe mugitzen gare-lako, emakumeok, migranteek eta jende nagusiak erabiltzen dugula, nagusiki, garraio kolektiboa. Orain arte, behintzat.

Kolektibo. Gero eta gutxiago erabiltzen den terminoa. Ez dut "publiko" esan, azken batez, publiko-pribatu asmakizun ustiatzailearen menpekoo delako garraioa. Ondo dakite zein den desberdintasuna greban dabilzan Bizkaibuseko langileek.

Ukrainagatik dela diote, horretaz ere luze egin genezake berba, baina kontua da garraioaren prezioa merketu dela azken sasoiari. Fenomeno berri bat ekarri du horrek: erabiltzen ez zuten hainbatek ezagutu dute zer den beste batzuekin batera bidaiatzea. Eta, horra hor sorpresa, norbera moldatu beharra.

Ospitalera bidaiak luzeak dira, bai. Oso. Kotxez ordu erdiz egiten den bidaiarako, autobusez ia ordu bete behar. Zerbitzua hobetu behar dela? Zalantzarik ez. Hainbat bide daude horretarako. Baina ez da ganorazkoa norberarentzako bidaiak zuzenak eskatzea, beste herri batzuetako jendeaz arduratu gabe. Min eman zidan, benetan, autobusak Lekei-

tiotik ospitaletara egiten duen ibilbideari "ibilbide turistikoa" deitzen zitzaioala irakurtzeak. Nork eta herri turistikoa bateko biztanle batek idatzita. Ea, Ispaster, Elantxobe eta hainbat herri eta auzotako jendea postal batean bizi eta gaixotuko ez balitz bezala.

Bien bitartean, Ondarroako batzuek nahi dute Markinakoek errepide orokorrean itxarotea, trafiko eta euri artean, bost-hamar minutu ez "galtzeko" herri barrura sartzen. Mundial egon zen egunkarian ironikoki erantzun zion andrea, hamar minutu aurreratzeko, hobe zela eskaera egin zuenaren herrian, hiru gel-tokiren orde, bakarra izango balute.

Denbora faltaz kexu bizi gara. Baina, zertarako nahi dugu ditzosozko denbora hori? Enpresari oparitzeko? Hamar minutu geuretzako erregalua izan litezke, irakurtzeko, hausnartzeko, geure baitan biltzeko. Hala ere, jendeak ez omen daki bere buruarekin egoten, *Science* aldizkarian argitaratutako esperimentuak azaldu bezala: lagineko gizonezkoen %67k eta emakumezkoen %25ek, 15 minutu pasaturik, nahiago izan zuten deskarga elektrikoak jaso, beren buruarekin egonean egon baino.

Garraio kolektiboa erabiltzeak bizitza beste modu batez hartzera darama, be-

rez. Puntualitatea irabazteaz gain, gauza asko ikasten dira: denboraren kudeaketa ezberdina egiten, egun osoa bes-tela antolatzen, itxaroten eta denbora ematen (geuretzako denbora hartzen!). Eta ikaskizun inportanteena: zerbitzu hori ez dela gure premia puntaletarako. Gure premiak asetzeko da, oro har, baina beste guztienak ere bai, Zengotita puntako atso zahar bakar batenak badira ere.

Laster batean gutako askok ezin izango dugu kotxerik eduki, garraio kolektiboan mugitu beharko gara derri-gor (hobe garraio benetan publikoan egingo bagenu). Horretan ere utzikieriaz dabilta gobernu eta administrazioak, zerbitzua hobetu eta zabaldu orde, ezertarako balioko ez digun AHT mada-rikatuarekin entretenituta, herritarrok horren kostata irabazten dugun dirua lagunekin xahutzen.

Bai, zenbaitetan zerbitzu zuzenak ere beharko dira (eta, akaso, lantzade-rak ere bai). Baina hobe geu ere hasten bagara ulertzen kolektibotasunak, ezer baino lehen, kolektiboan pentsatzea dakarrela. Bidea ez da nork bere babak el-tzetik ateratzea, beste batzuenak erreko ote diren kezkatu gabe. Garraioan eta etortzeko diren beste ataka guztietan. ●